



HEZKUNTZA SAILA

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

2024KO OTSAILAREN 16KO EBAZPENA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, AURREKO IKASTURTEETARAKO BAIMENDUTAKO BERARIAZKO ZERBITZU-EGINKIZUNAK LUZATZEKO PROZEDURA EZARTZEN DUENA.

Uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko funtzionario irakasleen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duenak, 12. artikuluan xedatzen duenez, “*deialdi espezifikoetan kontuan hartu ahal izango da zerbitzu-eginkizuna hurrengo ikasturteetarako luzatzeko aukera, egindako lana era positiboan aldez aurretik baloratu ondoren*”.

Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza honek, Hezkuntza Saileko Zuzendaritzekin koordinatuta, erabaki du zer zerbitzu-eginkizun luzatu ahal izango diren 2024/2025 ikasturterako (deialdi honen Eranskinean jasota daudenak).

2023/2024 ikasturterako eginkizunen esleipena egin zaien bitarteko funtzionarioek, karrerako funtzionarioek edo lan-kontratuko langile finkoek zerbitzu-eginkizunetan bete ez dituzten lanpostuak behin-behinean betetzeko, ez dute luzapen-eskubiderik izango.

Ikerketa eta Irakaskuntzari Laguntzeko Zerbitzuetako lanpostuak, baita luzapen-prozesu honen bidez betetzen ez diren ezaugarri bereziak dituzten lanpostuak ere, eta Hezkuntza Saileko Zuzendaritzek 2024/2025 ikasturterako sor ditzaketen premia berriak eta egiaztatuak, zerbitzu-eginkizunen beste deialdi espezifiko baten xede izango dira.

Karrerako funtzionarioek edo lan-kontratuko langile finkoek bete gabeko lanpostuak geratzen badira, deialdian parte hartu duten eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten bitarteko funtzionarioei esleitu ahal izango zaizkie, dagokion merezimenduen baremoaren arabera.

RESOLUCIÓN DE 16 DE FEBRERO DE 2024, DE LA DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POR LA QUE SE ESTABLECE EL PROCEDIMIENTO DE PRÓRROGAS DE COMISIONES DE SERVICIO ESPECÍFICAS AUTORIZADAS PARA CURSOS ESCOLARES ANTERIORES.

El artículo 12 del Decreto 185/2010, de 6 de julio, por el que se aprueba el Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario docente no universitario de la Comunidad Autónoma de Euskadi establece que “*las convocatorias específicas podrán contemplar la posibilidad de prórroga de la comisión de servicios para sucesivos cursos previa valoración positiva del trabajo desempeñado*”.

Esta Dirección de Gestión de Personal, en coordinación con las respectivas Direcciones del Departamento de Educación, ha determinado las comisiones de servicio que podrán ser objeto de prórroga para el curso 2024/2025, que se incluyen en el Anexo de la presente convocatoria.

El personal funcionario interino, al que se le haya realizado una asignación de funciones para el curso 2023/2024, para el desempeño de manera provisional de los puestos que no han sido cubiertos en comisión de servicios por el personal funcionario de carrera o el personal laboral fijo, no tendrá derecho de prórroga.

Los puestos de trabajo de los Servicios de Investigación y Apoyo a la Docencia, así como aquellos en los que concurren características singulares, que no sean cubiertos por este proceso de prórroga, así como las necesidades nuevas y acreditadas que pudieran surgir por parte de las Direcciones del Departamento de Educación para el curso 2024/2025, serán objeto de una nueva convocatoria específica de comisiones de servicio.

En el caso en que queden puestos sin cubrir por el personal funcionario de carrera o personal laboral fijo, estos podrán ser asignados al personal funcionario interino que haya participado en la referida convocatoria y cumpla con los requisitos de la misma, en virtud del baremo de méritos correspondiente.

Horren arabera, eta 71/2021 Dekretuak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta,

En su virtud, y teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 10 del Decreto 71/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación,

EBAZTEN DUT

LEHENA.- Aurreko ikasturteetan baimendutako zerbitzu-eginkizunak luzatzeko procedura ezartzea, **Ebazpen honen Eranskinean agertzen diren deialdi espezifikoren baten bidez emandakoa.**

Beraz, aipatutako Eranskinean adierazitako Ikastetxeetarako, Ikerketa eta Irakaskuntzari Laguntzeko Zerbitzuetarako edo Hezkuntzako Ikuskaritzarako egindako deialdi espezifikoetako batean jasotako hautaketa-edota norgehiagoka-prozesu bat gainditu delako eman ez diren zerbitzu-eginkizunak ez dira deialdi honen xede izango.

BIGARRENA.- **Luzatzea edo berariaz uko egitea eskatzeko aukera izango dute** 2023/2024ko ikasturtean zerbitzu-eginkizunetan aritzeko baimena lortu duten karrerako funtzionarioek eta lan-kontratuko langile finkoek, eta egoera horretan 2024/2025eko ikasturtean jarraitu nahi dutenek.

HIRUGARRENA.- Zerbitzu-eginkizunaren luzapenaren eskaera edo uko egitea **HEZIGUNEA atariaren bidez** (<https://hezigunea.euskadi.eus/>) egin beharko da, "Eremu personala" menutik, "Izapideak langileen sailarekin" azpimenuetik, "Zerbitzu-eginkizunetarako eskaerak" aukeratik.

Atari horretara sartzeko, beharrezkoa da eskatzailea aldez aurretik identifikatzea (NAN/AIZ + Pasahitza, edo XLNets-en erabiltzailea, lehendik baldin badago).

Eskabideak aurkezteko epea 2024ko otsailaren 16ko 12:00etatik otsailaren 23ko 12:00etara izango da.

RESUELVO

PRIMERO.- Establecer el procedimiento de prórrogas de las comisiones de servicios autorizadas para cursos escolares anteriores mediante alguna de las **convocatorias específicas recogidas en el Anexo de esta Resolución.**

Por tanto, aquellas comisiones de servicios que no se hayan concedido en virtud de la superación de un proceso selectivo y/o de concurrencia competitiva contemplado en alguna de las convocatorias específicas realizadas para los Centros educativos, Servicios de Investigación y Apoyo Docente o Inspección de Educación enunciadas en el indicado Anexo, no serán objeto de la presente convocatoria.

SEGUNDO.- **Podrán solicitar prórroga, o renunciar expresamente a la misma**, aquel personal funcionario de carrera y el personal laboral fijo que haya obtenido autorización para comisión de servicios en el curso escolar 2023/2024 y deseen continuar desempeñando la misma durante el curso 2024/2025.

TERCERO.- La solicitud o la renuncia de la prórroga de la comisión de servicios deberá realizarse a través del **portal HEZIGUNEA** (<https://hezigunea.euskadi.eus/>), desde el menú "Área de personal", submenú "Trámites con personal", opción "Solicitud de comisiones de servicio".

Para acceder a mencionado portal es necesario la identificación previa de la persona solicitante (DNI/NIE + Contraseña, o usuario de XLNets si ya se dispone).

El plazo de presentación de solicitudes será del 16 de febrero a las 12:00 al 23 de febrero de 2024 a las 12:00.

LAUGARRENA.- Zerbitzu-eginkizuna luzatu ahal izateko baldintzak hauek dira:

1.- Karrerako funtzionarioa edo lan-kontratuko langile finkoa izatea, 2024ko irailaren 1etik aurrerako ondorioekin.

2.- Zerbitzu aktiboan egotea, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publiko batean eskabidea egiten den egunean, baita 2024/2025eko ikasturtean ere, edo lanpostua gordetzea dakarten administrazio-egoeretako batean, eginkizun-gabetzearen kasuan izan ezik.

3.- Zerbitzu-eginkizuna, luzatu egin nahi dena, deialdia honen Eranskinean jasota egon behar da.

4.- Deialdi honen Eranskinean jasotako ezohiko lanpostuak betetzeko berariazko deialdia eragin zuen premiak jarraitzea.

5.- Funtzioak betetzen ari ziren lanpostua eta espezialitatea mantentzea.

6.- Ez izatea Hezkuntza Saileko Zuzendaritzak egindako aurkako txostenik, Ikastetxeko edo Ikerketa eta Irakaskuntzari Laguntzeko Zerbitzuko zuzendaritzak edo ikastetxe edo zerbitzu hori atxikita dagoena.

Zerbitzu-eginkizunetan egindako lana ebaluatu ezin bada, nahikoa lan-aldirik ez dagoelako, arrazoi horrengatik txostenik ez egotea ezin izango da ebaluazio positibo batekin parekatu; beraz, luzapen-aukera bertan behera geratuko da.

Hezkuntzako Ikuskaritzen zerbitzu-eginkizunen luzapenen kasuan, beharrezkoa izango da, nolanahi ere, balorazio positiboko berariazko txostena egitea.

7.- 2024/2025 ikasturterako ez izatea baimenik edo lizenziarik zerbitzu eraginkorrak ematetik salbuesteko; salbu eta norberaren bizitza, familia eta lana uztartzeagatik, genero-indarkeriagatik edo sexu-indarkeriagatik, edo terrorismoaren biktimentzat eta haien zuzeneko senideentzat.

CUARTO.- Los requisitos para obtener la prórroga correspondiente son:

1.- Ser personal funcionario de carrera o personal laboral fijo, con fecha de efectos 1 de septiembre de 2024.

2.- Encontrarse en situación de servicio activo en un centro público dependiente del Departamento de Educación en la fecha de realización de la solicitud, así como durante el curso 2024/2025, o en alguna de las situaciones administrativas que conlleven reserva de puesto, excepto la suspensión de funciones.

3.- La comisión de servicios a prorrogar tiene que estar incluida en el Anexo de la presente convocatoria.

4.- Mantenimiento de la necesidad que dio origen a la convocatoria específica de provisión extraordinaria contemplada en el Anexo de la presente convocatoria.

5.- Mantenimiento del puesto y la especialidad en la que se estaban realizando las funciones.

6.- Que no se haya emitido informe desfavorable por el Centro, el Servicio de Investigación y Apoyo a la docencia o la Dirección del Departamento de Educación a la que dicho centro o servicio se encuentre adscrito.

Para el supuesto en que no sea posible evaluar el desempeño realizado en comisión de servicios, por no existir período trabajado suficiente, la inexistencia de informe por esta causa no podrá equipararse a una evaluación positiva, por lo que decaerá la posibilidad de prórroga.

En el supuesto de las prórrogas de las comisiones de servicio en la Inspección de Educación será necesario, en todo caso, el correspondiente informe expreso de valoración positiva.

7.- No tener concedido para el curso 2024/2025 permiso o licencia que le exima de prestar servicios efectivos; a excepción de los motivados por conciliación de la vida personal, familiar y laboral, por razón de violencia de género o de violencia sexual, o para las víctimas de terrorismo y sus familiares directos.

8.- Abenduaren 26ko 53/1984 legeak, Administrazio Publikoaren Zerbitzuko pertsonalaren bateraezintasunari buruzkoak, arautzen dituen bateraezintasun-egoeretakoren batean ez egotea.

Baldintza guztiak 2024/2025 ikasturtean zehar bete beharko dira. Bestela, emandako zerbitzu-eginkizunaren luzapena ondoriorik gabe geratuko da, ebazpen-zati honetan xedatutako betekizunak ez betetzeagatik.

BOSGARRENA.- 2024/2025 ikasturtean praktikaldia egin behar duten langileek ezin izango dute zerbitzu-eginkizuna luzatu, eta aipatutako luzapena eskatzeko eskubidea galduko dute.

Salbuespen gisa, luzatu beharreko zerbitzu-eginkizunean egin ahal izango dira prácticas, betiere bat badatoz hautatu diren espezialitatea eta praktikaldia gainditzeko behar den ordu kopuruarekin.

SEIGARRENA.- Zerbitzu-eginkizuna luzatzeko eskaerak egindako jardueraren balorazio positiboa duela ulertuko da, betiere Ikastetxeko edo Ikerketa eta Irakaskuntzari Laguntzeko Zerbitzuko zuzendaritzak edo ikastetxe edo zerbitzu hori atxikita dagoen Hezkuntza Saileko Zuzendaritzak behar bezala arrazoitutako kontrako txostenik egin ez badu.

Ezin izango da aldeko txostenik egin, eta zerbitzu-eginkizuna luzatzeko aukera bertan behera geratuko da; baldin eta, izendapenaren egunetik eta deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunera arte, luzapenaren eskatzaileak ez badu gutxienez 2/3 lanaldia bete, edo zerbitzu-eginkizunaren aldiaren erdia ez badu benetan lan egin.

Zerbitzu-eginkizunetan jarduteko gutxieneko eskakizun horretatik salbuetsita daude 2023/2024 ikasturte honetan Hezkuntza Sailak deitutako Lan Eskaintza Publikoko epaimahairen batean parte hartzeko izendatu diren pertsonak.

8.- No estar incuso en ninguno de los supuestos de incompatibilidad regulados en la Ley 53/1984 de 26 de diciembre, de incompatibilidad del Personal al Servicio de la Administración Pública.

Todos los requisitos deberán mantenerse a lo largo del curso 2024/2025. En caso contrario, la prórroga de la comisión de servicios concedida quedará sin efectos por incumplimiento de los requisitos establecidos en el presente resuelvo.

QUINTO.- Aquel personal que tenga que realizar el período de prácticas en el curso 2024/2025 no podrá prorrogar la comisión de servicios; decayendo su derecho a solicitar la referida prórroga.

Excepcionalmente, se podrán realizar las prácticas en la comisión de servicios a prorrogar, siempre que coincida la especialidad en la que han resultado seleccionadas y el número de horas requeridas para superar el período de prácticas.

SEXTO.- Se entenderá que la solicitud de prórroga de la comisión de servicios cuenta con la valoración positiva de desempeño, siempre que no se haya emitido por parte de la dirección del Centro, del Servicio de Investigación y Apoyo Docente o de la Dirección del Departamento de Educación al que estén adscritos el centro o el referido servicio un informe desfavorable debidamente motivado.

No se podrá emitir informe favorable y decaerá el derecho de pórroga de la comisión de servicios cuando, desde el inicio del nombramiento hasta el día siguiente de la fecha de publicación de la presente convocatoria, la persona solicitante de la prórroga no haya desempeñado una jornada diaria mínima de 2/3, o no haya prestado servicios efectivos la mitad del periodo de la comisión de servicios.

Quedan eximidas de esta exigencia de desempeño mínimo en comisión de servicios aquellas personas que hayan sido nombradas para formar parte de alguno de los tribunales de la Oferta Pública de Empleo convocada por el Departamento de Educación durante el presente curso 2023/2024.

Are gehiago, bizitza pertsonala, familia eta lana uztartegatik baimenen kasuetan; genero-indarkeriagatiko edo sexu-indarkeriagatiko baimenen, edo terrorismoaren biktimentzako eta haien zuzeneko senideentzako baimenen kasuetan, benetako jarduna aurreko paragrafoan ezarritakora egokitzen ez bada, aurreko ikasturtean eta, hala badagokio, ikasturte honetan benetan egindako jarduera hartuko da kontuan ebaluazio horretarako.

2023/2024ko ikasturterako lehen aldiz baimendu diren zerbitzu-eginkizunen kasuan, aurreko paragrafoan agertutako egoeratan agertzen badira, arrazoi horrengatik txostenik ez egotea ezin izango da ebaluazio positibo batekin parekatu; beraz, luzapen-aukera bertan behera geratuko da.

ZAZPIGARRENA.- Ikastetxeko edo Ikerketa eta Irakaskuntza Laguntzarako Zerbitzuko zuzendaritzak edo zentro edo zerbitzu hori atxikita dagoen Hezkuntza Saileko Zuzendaritzak eskatzaileak bere lana egitearen aurkako ebaluazio-txostena egiten badu, edo lan hori ebaluatzeko ezintasunari buruzko txostena egiten badu, behar besteko lan-aldirik ez dagoelako, eskatzaileak hasitako expediente an sartuko da, HEZIGUNEA plataforma. Zuzendaritza bakoitzak HEZIGUNEAko "Zuzendaritza-taldea" arloan eragiten dioten eskabideak ikusi ahal izango ditu.

Eskatzaileari, aurkako txostena egin zaionean, ez zaio zerbitzu-eginkizuna luzatuko, eta, gainera, ezingo du parte hartu bere jardun-eremuko zerbitzu-eginkizunen deialdi espezifikoetan 2024/2025 ikasturterako.

Aipatutako kontrako txostenak edo txosten hori egitea ezinezkoa dela adierazten duen txostena egiteko epea **2024ko otsailaren 23an hasiko da eta otsailaren 28an amaituko da, biak barne.**

ZORTZIGARRENA.- Luzapena eskatzen ez dutenek, Ebazpen honetan ezarritakoaren arabera, zerbitzu-eginkizunetan jarraitzeko

Además, para los casos de permisos por motivos de conciliación de la vida personal, familiar y laboral; por razón de violencia de género o de violencia sexual, o para las víctimas de terrorismo y sus familiares directos, en que el desempeño efectivo no se ajuste a lo establecido en el párrafo anterior, se tendrá en cuenta para la citada evaluación el desempeño efectivamente realizado durante el curso anterior y, en su caso, durante el presente curso.

En el caso de comisiones de servicio autorizadas por primera vez para el curso 2023/2024 que se encuentren en los supuestos contemplados en el párrafo anterior, la inexistencia de informe por esta causa no podrá equipararse a una evaluación positiva, por lo que decaerá la posibilidad de prórroga.

SÉPTIMO.- Para el supuesto en que la dirección del Centro o del Servicio de Investigación y Apoyo Docente o la Dirección del Departamento de Educación a la que dicho centro o servicio se encuentre adscrito, emita informe de evaluación desfavorable del desempeño de la labor por parte de la persona solicitante, o emita informe sobre la imposibilidad de evaluar referido desempeño, por no existir período trabajado suficiente, éste será incorporado en el expediente iniciado por la persona solicitante, en la plataforma HEZIGUNEA. Cada dirección podrá ver las solicitudes que le afectan en el área "*Equipo de dirección*" en HEZIGUNEA.

A la persona solicitante, a quien se le haya emitido un informe desfavorable, no se le prorrogará la comisión de servicios, y, además, no podrá participar en las convocatorias específicas de comisión de servicios de su ámbito de actuación para el siguiente curso 2024/2025.

El plazo para la emisión de los citados informes desfavorables o informe de imposibilidad de emitir el mismo **comenzará el 23 de febrero y finalizará el 28 de febrero de 2024, ambos incluidos.**

OCTAVO.- Quienes no realicen la solicitud de prórroga, conforme a lo establecido en la presente Resolución, decaerán en su derecho a continuar en la comisión de servicios

eskubidea galduko dute, isilbidez adierazita uko egiten diotela zerbitzu-eginkizun horri.

BEDERATZIGARRENA.- Langileak Kudeatzeko zuzendariaren Ebazpenaren bidez emango da zerbitzu-eginkizunak luzatzeako baimena, eskatzaileek Deialdi honetako Laugarren atalearen baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu ondoren.

Uko egiteak aipatutako ebazpenean ere onartuko dira.

Zerbitzu-eginkizunak luzatzeari buruzko ebaezpenea Hezkuntza Sailaren web orrian argitaratuko da, eta interesdunei, jakinarazpenaren ondorioetarako, HEZIGUENEA plataforman.

Aipatutako ebaezpenea jakinarazi ondoren, ezin izango da luzatzeari uko egitea eskatzeko idazkirkirik aurkeztu.

Salbuespen gisa, zerbitzu-eginkizunetan luzatutako lanpostuaren baldintzak funtsean aldatzen badira, uko egin ahal izango zaio era justifikatuan, horretarako emango den epean.

Luzapena indarrik gabe geratuko da benetan gauzatzeko plaza hutsik ez badago, lekualdatze-lehiaketan edo lanpostuari dagokion beste horniketa-moduren batean arauz betetzearen ondorioz.

Eraginik gabe geratuko da, halaber, lanpostuaren titularra lanera itzultzen bada edo arauz betetzen bada.

HAMARGARRENA.- Deialdi honen xedea ere bada **Hezkuntza Ikuskaritzako** lanpostuetan zerbitzu-eginkizunen luzapenak egitea, baita Zonaldeko Buruen zerbitzu-eginkizuenak.

Horrelako luzapenetarako, lehenik eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuan xedatutakoa aplikatuko da, eta,

correspondiente, entendiéndose que renuncian de manera tácita a la citada comisión.

NOVENO.- Las prórrogas se concederán mediante Resolución de la Directora de Gestión de Personal una vez comprobado que las personas solicitantes cumplen todos los requisitos establecidos en el Resuelvo Cuarto.

Las renuncias se aceptarán en su totalidad en la citada resolución.

La Resolución de concesión de prórrogas se publicará en la página web del Departamento de Educación, y, a efectos de notificación a las personas interesadas, en la plataforma HEZIGUNEA.

Una vez notificada la citada Resolución no se admitirá la presentación de renuncia a la prórroga.

Excepcionalmente, para el supuesto en que haya una modificación sustancial de las condiciones del puesto de trabajo prorrogado en comisión de servicios, se podrá renunciar a la misma de manera justificada, en el plazo que se conferirá al efecto.

La prórroga quedará sin efecto en el caso de que no hubiese plaza vacante para su materialización efectiva, a consecuencia de su cobertura reglamentaria en concurso de traslados o la forma de provisión que corresponda al puesto.

También quedará sin efecto en el supuesto de reingreso de la persona titular del puesto o cualquier cobertura reglamentaria.

DÉCIMO.- Es también objeto de la presente convocatoria las prórrogas de las comisiones de servicio en los puestos de **Inspección Educativa**, así como en el caso de las comisiones de servicios de sus Jefas y Jefes Zonales.

Para este tipo de prórrogas, se aplicará, en primer lugar, lo dispuesto en el Decreto 98/2016, de 28 de junio, de la Inspección de Educación en la Comunidad Autónoma del País

subsidiarioki, deialdi-ebazpen honetan xedatutakoa.

Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetan zerbitzu-eginkizunak betetzen badira, beste urtebetez luzatu ahal izango dira, baldin eta dagokion Zonaldeko Buruak ikuskaritza-lanaren ebaluazio positiboa egiten badu.

98/2016 Dekretuaren 15. artikuluaren bigarren apartatuan osatutako ohiko prozeduraren bidez lanpostu hori eskuratu duten Zonaldeko Buruek 2024/2025 ikasturterako luzapena eskuatu ahal izango dute deialdi honen bidez, dagokion Lurraldeburuak egindako lanaren ebaluazio positiboa egin ondoren.

Bestalde, aipatutako Dekretuaren 15.3 artikulan jasotako salbuespenezko prozeduraren bidez lanpostua eskuratu duten Zonaldeko Buruak ez dira deialdi honen bidez luzatuko. Izendapen horiek eragin zituzten salbuespenezko inguruabarrak mantentzen badira, Ikuskaritza Nagusiak, Lurraldeburuak proposatuta, Langileak kudeatzeko Zuzendaritza honi eskaera egingo dio, pertsona horiei 2024/2025 ikasturtean, zerbitzu-eginkizunetan, behin-behineko eginkizunak esleitzeko.

Bi kasuetan, ikuskaritza-zeregina ebaluatuko da, eta horretarako erreferentzia gisa hartuko dira ikuskaritza-lanarekin lotutako gaitasunak; helburua, hezkuntza ikuskarien lanbide-jarduera hobetzea izango da. Ebaluazioaren erreferentzia izango dira gaitasun tekniko eta profesionalak, sozialak, etikoak eta profesionalak, ikuskaritza-zeregina betetzeko beharrekoak diren aldetik. Ebaluazioa erabilgarritasun, bideragarritasun, egokitasun (legezko modua eta etikoa) eta zehaztasun (emaitza nabarmen eta fidagarriak) estandarren arabera egingo da.

Aipatutako txosten-ebaluazio horiek egiteko epoa **2024ko otsailaren 23an hasiko da eta otsailaren 28an amaituko da, biak barne.**

Vasco, y subsidiariamente, lo dispuesto en la presente resolución de convocatoria.

En el supuesto de las comisión de servicios en puestos de trabajo de la Inspección de Educación, se podrán prorrogar las mismas por un período de un año más, siempre y cuando se emita la evaluación positiva de la labor inspectora, emitida por parte de la Jefatura Zonal correspondiente.

En el caso de las Jefas y Jefes Zonales que hayan accedido a referido puesto por el procedimiento ordinario contemplado en el artículo 15, apartado segundo, del Decreto 98/2016, podrán solicitar la respectiva prórroga para el curso 2024/2025 a través de la presente convocatoria, previa evaluación positiva del trabajo desarrollado realizada por la Jefa o Jefe territorial correspondiente.

Por otra parte, las Jefaturas Zonales que hayan accedido al puesto a través del procedimiento excepcional recogido en el artículo 15.3 del mencionado Decreto, no serán objeto de prórroga mediante esta convocatoria. En el supuesto en que se mantengan las circunstancias excepcionales que motivaron estos nombramientos, la Inspección General, a propuesta del Jefe o de la Jefa Territorial, realizará la oportunua solicitud a esta Dirección de gestión de personal, para asignar a estas personas las funciones con carácter provisional, en comisión de servicios, durante el curso 2024/2025.

En ambos supuestos, se evaluará el ejercicio la función inspectora tomando como referente las competencias asociadas al trabajo de la Inspección y teniendo como objetivo la mejora de la práctica profesional de los inspectores y las inspectoras de Educación. La evaluación tendrá como referente las competencias técnico-profesionales, sociales y ético-profesionales, necesarias para el ejercicio de la función inspectora, y será realizada conforme a los estándares de utilidad, viabilidad, propiedad (modo legal y ético) y precisión (resultados relevantes y fiables).

El plazo para la emisión de los citados informes comenzará el **23 de febrero y finalizará el 28 de febrero de 2024, ambos incluidos.**

HAMAIKAGARRENA.- Datuen babesari buruzko informazio oinarrizkoa.

Zure datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Langileak kudeatzea.

Arduraduna: Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Irakasle eta irakasle ez diren langileen kudeaketa.

Legitimaziona: Tratamendua beharrezkoa da, interesduna alderdi duen kontratu bat betearazteko.

Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

- 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitatekoez kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoei buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

Hartzaleak: Estatuko Administrazioko beste organo batzuk. Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Eskubideak:

Tratamenduaren arduradunaren aurrean eskubide horiek baliatzeko aukera duzu, datuen babesaren arloko eskubideak baliatzeko prozeduraren bidez:

<https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-tramite/eu/>

UNDÉCIMO.- Información básica sobre protección de datos.

Sus datos de carácter personal serán tratados e incorporados a la actividad de tratamiento denominada: Gestión de personal.

Responsable: Dirección de Gestión de Personal, Departamento de Educación.

Finalidad: Gestión de personal docente y no docente.

Legitimación: Tratamiento necesario para ejecutar un contrato en el que el interesado o interesada es parte o para la aplicación a petición de este de medidas precontractuales.

Tratamiento necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento.

- Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.
- Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.
- Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores.

Personas destinatarias: Otros órganos de la Administración del Estado. Otros órganos de la Comunidad Autónoma.

Derechos:

Usted tiene la posibilidad de ejercitar estos derechos ante el Responsable del tratamiento mediante el procedimiento de ejercicio de derechos en materia de protección de datos:

<https://www.euskadi.eus/ejercicio-de-derechos-proteccion-de-datos/web01-tramite/es/>

Era berean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari edozein erreklamazio egiteko ahalmena duzu, edo, bestela, aurretiazko erreklamazio bat egin diezaiokezu Datuak Babesteko ordezkariri:

[Aurretiazko erreklamazioa datuak babesteko ordezkariren aurrean - Eusko Jaurlaritza \(euskadi.eus\)](https://www.euskadi.eus/arbitraje_denuncia_reclamacion/reclamacion-previa-ante-la-delegada-de-proteccion-de-datos/web01-tramite/es/)

Así mismo, usted tiene la potestad de dirigir cualquier reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos, o puede realizar una reclamación previa ante la Delegada de Protección de Datos:

https://www.euskadi.eus/arbitraje_denuncia_reclamacion/reclamacion-previa-ante-la-delegada-de-proteccion-de-datos/web01-tramite/es/

Informazio osagarria:

Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: www.euskadi.eus/informazio_klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/048100-capa2-es.shtml

Araudia:

- Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5eko, Datu Personalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

HAMABIGARRENA.-

Administrazio Publikoetako Administrazio Procedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeak 121. artikulan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, gorako errekursoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, jakinarazpena eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 16a.

Información adicional:

Puede consultar la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en nuestra página web: www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/048100-capa2-es.shtml

Normativa:

- Reglamento General de Protección de Datos (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).
- Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673).

DUODÉCIMO.- Con arreglo a lo dispuesto en los artículos 121 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejería de Administración y Servicios en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Vitoria-Gasteiz, a 16 de febrero de 2024.

**Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL**

ANEXO / ERANSKINA

Aurreko ikasturteetarako baimendutako zerbitzu-eginkizunen deialdi espezifikoak, luzapena dutenak.	Convocatorias específicas de Comisiones de servicios autorizadas para cursos escolares anteriores objeto de prórroga.
Txostena berariaz egingo da kontrakoa denean bakarrik, do txostena egiteko gutxieneko jarduerarik ez badago.	Se emite informe expresamente solo en el caso en que sea desfavorable, o no exista un desempeño mínimo para emitir el mismo.
<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza premia bereziak: <ul style="list-style-type: none"> – Berritzegunea: Hezkuntza Premia Bereziako aholkulariak. – Ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidegiak (IBT). – Gela Egonkorra et Zereginen Ikaskuntzarako Gelak ikastetxeetan. – EH ibiltariak • Ospitaleko eta etxeko hezkuntza arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarria. • Berritzegune: Idazkari-dokumentalistak. • Berritzegune: Laguntzaileak. • Berritzegune: Laguntza zerbitzuak. • Irakasleak Alfabetatu eta Euskalduntze Programa – Irale. • Euskal Girotsa Barnetegiak. • Sukarrieta Eskola Saiakuntzarako Zentroa (Urdaibai). • Ikaskuntza Birtual eta Digitalizatuetarako Lanbide Heziketako Ikastetxe Bateratua (BIRTLH). • Lanbide Heziketari Aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroa – Tknika. • Etorkizuneko Ikaskuntzen Euskal Institutua - EIEI (lehen, Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua - EEI). • Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea - ISEI-IVEI. • Eskolaz kanpoko jardueren programan zerbitzuak (ACEX). 	<ul style="list-style-type: none"> • Necesidades educativas especiales: <ul style="list-style-type: none"> – Berritzegune: Asesores/as de Necesidades Educativas Especiales. – Centros de Recursos para la Inclusión educativa del alumnado con discapacidad visual (CRI). – Aulas Estables y Aulas de Aprendizaje de Tareas en centros educativos. – ALEs itinerantes • Atención educativa hospitalaria, domiciliaria y terapéutico educativa. • Berritzegune: Secretarios/as, documentalistas. • Berritzegune: Colaboradores/as. • Berritzegune: Servicios de apoyo. • Programa de Alfabetización y Euskaldunización del Profesorado - Irale. • Centros de Afianzamiento Idiomático (Barnetegiak). • Centro experimentación escolar de Pedernales (Urdaibai). • Centro Integrado de Formación Profesional de Aprendizajes Virtuales y Digitalizados (CIFPD). • Centro de Investigación e Innovación Aplicada de la Formación Profesional del País Vasco – Tknika. • Instituto Vasco de Aprendizajes Futuros - IVAF (antes, Instituto Vasco del Conocimiento de la Formación Profesional - IVAC). • Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa – ISEI-IVEI. • Servicios en el programa de actividades extraescolares (ACEX).
Aldeko ebaluazio-txostena behar dute	Necesitan informe de evaluación favorable
<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntzako Ikuskaritza • Hezkuntzako Ikuskaritzaren Zonaldeko buruak 	<ul style="list-style-type: none"> • Inspección Educativa • Jefas y jefes Zonales de la Inspección Educativa